

“Gure mahaia Durangoko azokan kasetez betea ikusten dut”

Gotzon Uribe | Musika eragilea

Mungiar honen katalogoan diren euskal artistak (Split 77, Royal Canal, Cherry Boppers, Le Noise...) azkenaldiko joeren erakusgarri dira... Zoritxarrez gutxi batzuen zorionerako.

FERMIN ETXEGOIEN
Argazkia: Iñigo Azkona

**Noizpop bataiatu zenuen zure zigilua... Bukae-
ra eman nahi zenion euskal rockaren heavy
aroari?**

Inoiz ez dut ile luzerik izan, eta eskolan lagunek ez zidaten uzten heavya izaten. Hertzainak eta Kortatu entzun eta laster deskubritu nuen horren atzean benetan zer zegoen: The Clash, The Specials, Toots & The Maytals... Gero maitemindu egin nintzen eta The Smiths etorri ziren.

**Zure esperientzian oinarriturik, gaur egun zen-
batean dago euskal disko batek sal dezakeen
ale kopururik ñimiñoena?**

Gure diskoetxean disko gutxi saltzen ditugu baina amets egiten ere oso ondo pasatzen dugu. *Revival* garaian gaude eta orain kasete euskarrira bueltatzekotan gabilta. Gure mahaia Durangoko azokan kasetez betea ikusten dut.

**Herrietan ez bezala, hirietan jendea “bakarrik
interesatzen zaiona” ikustera joaten da.**

Hirietan gero eta eskaintza oparoagoa dago, eta Bilbo Europako hiririk garrantzitsuenen pare dago kontzertuei dagokienez. Ikuslea jada ez dago prest edozer gauza ikusteko. Joera, Internet, moda eta estetikaren garaian erabat murgilduta gaude eta guk, euskaldunok, hor ere gure lekua egiten jakin behar dugu. Momentuari pulstua hartu behar diogu, beldurrik gabe.

**Susmoa daukat Bilboko Kafe Antzokia uste
baino plaza zailagoa izan daitekeela euskal
talde askorentzat.**

Izan daiteke. Kontuan izan Bilbora datorren edozein artistak egun berean bost edo sei

kontzertu gehiago dauzkala hirian, berearekin lehiatzen. Ondo prestatu behar dira kontzertuak, promozioa eta antolaketa on batekin. Badaude aste ugari Kafe Antzokian asteartetik igandera kontzertuak izaten direla. Atera kontuak!

**Ez didazu esango heavyak direla diru galerarik
eragiten ez duten euskal talde bakarrak!**

Hori esaten dute kamiseta heavyak saltzen dituzten dendariak!

**Jaialdi erraldoien inguruan (BBK Life, Azkena
Rock Festival) gaizki esaka aritzen diren pro-
motore txiki horietakoa al zaitugu?**

Ondo pasatzen dut jaialdi horietan. Askotan pentsatu izan dut gustura egongo nintzela 1969an Woodstocken. Furgoneta zahar bat alokatu, Jimmy Hendrixekin dantzan egin eta Dylanen abestiak entzun galtza bakeroak eta cowboy kapela jantzita.

**Ikusi dut Facebook-en zaudela... Milioi bat
lagun izan nahi zenuke, Roberto Carlos kanta-
riak zioen bezala?**

Berriki Londresko neska bat ezagutu dut, disko zigilu txiki bat dauka eta bere etxean ospatuko duen jai batera gonbidatu nau! Roberto Carlos ez, baina bat-batean Los Panchos taldearen *Si tú me dices ven* abestia etorri zait burura, kar, kar, kar.

**Patxi Lopezek bereziki maite du Ruperren *Zain-
du maite duzun hori*, eta Eduardo Madina Belle
and Sebastian-en zale sutsua da. Noiz pop?
Orain pop!**

Kar, kar, kar. Nor ez da maitemindu ba Ruperren kantu batekin? ■